

LGTBI KOMUNITATEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

berria

Ostirala, 2014ko ekainaren 27a

Testuak: Iñaki Lasa

02 Elkarrizketa Iraitz Salegi

03 Egitaraua Manifestazio deialdiak

04 Erreportajea Homosexualitatea Afrikan

Aldarriaz harro



02 LGTBI komunitatearen nazioarteko eguna Elkarrizketa

Hilaren 13an aurkeztu zuten Arrakala dokumentala Bilgune Feministak eta *Topatu.info*-k. Jendetza bildu zen Dokan, heteroaraua lehen mailara ekarri eta pitzadurak sortzeko asmoa duen proiektua ikusteko. Arrakalaren sortzaileetako bat da Iraitz Salegi (Bergara, Gipuzkoa, 1990).

G Zergatik erabaki zenuten Arrakala proiektua garatzea?

E Bilgune Feministak eta Topatuk badugu harreman nahiko naturala, Euskal Herrian ezkerretik eta mugimendu abertzaleetik feminismoaren alde egiten duelako Bilguneak eta Topatu gazte esparru iraultzailearen barruan kokatzen delako. Ikusten genuen gazte mugimenduan bazegoela bizi eredu askatzaileen aldeko borroka, baina heteroaraua gertatzen zela bigarren mailan, hirugarren mailan edo zuzenean ez zela lantzen. Horrelako tresna batekin, izugarritzko aukera ikusi genuen lehen mailara ekartzeko, aitzakia bat sortzeko. Mugimendu feministan ere ez zegoen lan-keta hori egiteko tresnarik. Liburuak-eta badaude, baina nahi genuen tresna airosoago bat, eta ikus-entzunezkoak horretarako aukera ematen du. Hausnarketa horretatik atera zen proiektua.

G Heteroaraua eta heteropatriarkatua azaleratzea bainoago, horren inguruko hausnarketa sustatzea da proiektuaren helburu nagusia?

E Hori da. Hasieratik esan dugu nahi dugula jendea identifikatua sentitzea heteroarauak gudan eragiten duen guztia ere. Ez dugu egin nahi izugarritzko lan teorikoa, baizik eta esperientziak batu, norberak esan dezan «niri ere eragiten dit». Guk esperientzia eta bizipen batzuk erakutsi ditugu; ez dute helburu eredu gisa azaltzea, baizik eta erakustea badaudela moduak heteroarautik kanpo bizitzeko, edo behintzat kanpoan bizitze horren aldeko borroka egiteko; norbere barruan kreak txiki batzuk eragitea.

G Garrantzi handia eman diozue testigantzei. Hamabost pertsona elkarrizketatu dituzue; haien hitzetan ikusten da zer den heteroaraua.

E Batez ere identifikazioari begira du garrantzia. Bizipenek aukera hori ematen dute; ahalbidetzen dute norbera identifikatua sentitzea. Horregatik hartu genuen testigantzak jasotzeko erabakia, falta zelako lanketa teoriakoetan bizipen eta sentipenak jarreza; ohararazteko gure bizitza, eguneroko bizimodua, erabat politikoa dela.

G Denetarik jenderekin aritu zarete. Zergatik aukeratu zenituzten pertsona horiek?

E Hasieratik nahi genuen aha-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Iraitz Salegi

«Heteroaraua segundo bakoitzean bizi dugu»

Heteroarauak eta heteropatriarkatuak gizartean duen eragina azaleratu du Bilgune Feministaren eta 'Topatu.info'-ren Arrakala proiektuak. Dokumentala estreinatu berri dute, eta material ugari jarri dute 'www.arrakala.net' webgunean.

lik eta profil pluralena topatu.

Alde batetik, eragile jakin batzuegan jo dugu: EHGAM, Aldarte, Bilgune Feminista, Medeak... Izan ere, eragile horiek eraman dute borroka kolektibizazioa. Pertsona horiek eragile izenean hitz egin arren, beti bizipenetik hitz egiten dute. Egin ditugun lau blokeak osatzeko, hainbat soslai sartu nahi genituen; nortasunen blokean, esaterako, emakume transexual bat, nahiko diskurtso indartsuarekin, gainera; elkarbizitzaren blokean, 60 urteko emakume bat, bikotea izan arren bakarrik bizitze erabaki duena.

G Dokumentala lau bloketan banatu duzue, eta horietan heteroarauaren hamaika aurpegi ikus daitezke. Proiektuarekin hasi zinetenean, buruan zenituzten gai horiek

guztiak, edo azaleratuz joan dira testigantzak jasoahala?

E Gaia horren zabala izanda, hasieratik ikusi genuen lan orokorrerik hitz egiteko arriskua zegoela. Horregatik joan ginen batez ere lau bloke horiek egitera. Egia da hor atera direla beste hamaika kontu, nahi edo ez atera behar zirenak, estuki lotuta daudelako heteroarauarekin. Nahita sartu ditugu, ikusarazteko. Borroka feminista hasieratik nabarmendu nahi izan dugu, eta militantzia iren inguruko hausnarketa plaza-ratu. Guk ikuspegi horretatik begiratu nahi izan dugu, baina oso gai zabala da, eta mila konturi buruz hitz egin gerezake.

G Heteroarauaren zertzeladak ikus daitezke dokumentalean.

E Abiatu genuen proiektuak, heteroarauaren inguruko lan gisa

planteatuta, bizitza guztia har dezake. Heteroarauak zeharkatzen zaitu alde guztietatik. Erakutsi nahi izan dugu heteroarauak zein pisu duen gure bizitzan, eguneko 24 orduetan. Zer den heteroaraua? Eguneroko, segundo bakoitzean bizi dugun hori.

G Eguneroko bizimodu horretan nabaritzen da, agian, heteroarauak gizartean duen pisua? Testigantzetan hamaika adibide agertzen dira.

E Nabaritzen da horrelakoetan. Gai horiek dramatizazio handiarekin tratatzen dira askotan, negatibotasun horretatik. Ainhoa Etxaidek dokumentalean dio: «Dramatizatzea da aukera bat, eta horri guztiari buelta ematea beste bat». Hori egin nahi izan dugu; umorez landu, betiere borrokarako ekarpena badu, alde batea utzi gabe horrek dakartzan

min guztiak. Nire ustez, dokumentalak badauka hori: dramatizazioa alde batera utzita, ahalduntzen garela horretaz guztiaz.

G Dokumentala proiektuaren zati bat da. Interneten tresna kutxa bat jarri duzue sormen lanekin, lantzeko materialarekin...

E Proiektua hasi genuenetik, tresna bat sortu behar genuela planteatu genuen. Ez genuen zinemetan proiektatzeko dokumental bat egin nahi; ikus-entzu-

«Fase txiki bat itxi dugu, baina orain hartuko du bidea; Arrakalak ez du iraugintze datarik»

nezkoa bai, baina proiektu baten parte gisa. Nolabait, hori da oinarria, eta sortu nahi izan dugu tresna bat eztabaidak emateko eta gaia lehen lerroa ekartzeko. Hainbat baliabide jarri ditugu www.arrakala.net helbidean. Hor ditugu, adibidez, norbaitek dokumentala proiektatzen badu, eztabaida dinamizatze galdetegi moduko bat eta lanketa sako-nago baterako tailer eredu bat. Elkarrizketa osoak ere publikatu ditugu. Horrekin pisua kendu diogu dokumentalari, aldarrikatuz Arrakala tresna bat dela, horretarako sortu dela eta astindut behar dugula eremu ez, bakoitzak ardura bere gain hartuta.

G Arrakala hasi besterik ez da egin.

E Fase txiki bat itxi dugu, baina Arrakalak orain hartuko du bidea. Nahikoa indar izango duela aurreikusten dugu. Ikusiko dugu nola hartzen duten kolektiboek, baina ez du iraugintze datarik. Zazpi hizkuntzataraz itzuli dugu, eta gure asmoa da nazioartean zabaltzea, bai gai horren inguruko lanketa egiteko, bai Euskal Herriko lagin txiki bat erakusteko.

G Lantaldeko kide guztiak emakumeak zarete; dokumentalaren aurkezpenaren ere, ikusle gehienak emakumeak ziren. Gizonekoentzat deserosoa al da heteroarauaz eta heteropatriarkatuaz hitz egitea?

E Izan liteke beldur kontua; dokumentalean askotan esaten da gai horren inguruan hitz egitea oso zaila dela, min handia sortzen digula, jarri behar dugulako zeure buruari begira, zeure burua zailantzen jartzen. Heteroaraua kapitalismoaren eta patriarkatuaren mekanismo bat den heinean, guztiok zapaltzen eta arautzen gaitu; bereziki emakume izendatuoi eragiten digu. Bide horretan, gaia emakumeen abotzetatik landu nahi izan dugu.



Iragan larunbatean Miarritzen egindako mobilizazioa. BOB EDME

Aldarrikapena eta festa, kalera

Manifestazioak izango dira Hegoaldeko lau hiriburuetan.

Ozen eta harro entzungo da bihar sexu askapenerako mugimenduaren aldarria. Manifestazioak antolatuta dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan—Iparraldean astebete lehenago egin zuten—, ekainaren 28ko ekitaldien ardatz gisa.

Iruñean egingo dute goiztiarrena: 12:00etan abiatuko dira, Vianako printzearen plazatik, *Nabarra, tierra de diversidad. Hautsi heteroaraua nonahi* lelopean. Gasteizen, ordubate geroago hasiko dira, 13:00etan, Andre Mari Zuriaren plazan. Arratsaldez egingo dituzte Donostiako eta Bilboko elkarretaratzeak: Bulebarretik abiatuko da Gipuzkoakoa, 19:00etan, eta Plaza Eliptikoan (Moyua plaza) egingo dute Bilboko manifestazioa, 20:00etan, *11 sentipen, 11 bizipen, 11 izate* goiburuean. Hiriburuetan ez ezik, hainbat herritan ere elkarretaratzeak egingo dituzte.

Baionan, Txalaparta espazioa inauguratuko du bihar Les Bascos LGTB elkarreak, Laffite karrikan, 11:00etan. «Diskriminazioaren aurkako borrokan beste fase bat» hasiko du elkarreak. Bertan izango dira Baionako alkatea, Jean-Rene Etxegarai, eta Sylviane Alaux eta Colette Capdevielle diputatuak.

Aldarrikapen eta festa eguna da biharkoa. Manifestazioez gain, hainbat festa eta bazkari antolatu dituzte sexu askapenerako kolektiboek. Besteak beste, EHGAMek Urrezko Hirukia eta Trapuzko Espartina sariak banatuko ditu.

Egitaraua

Manifestazioak

Iruñea

■ 12:00. Vianako printzearen plazan.

Gasteiz

■ 13:00. Andre Mari Zuriaren plazan.

Donostia

■ 19:00. Bulebarrean.

Bilbo

■ 20:00. Plaza Eliptikoan (Moyua plaza).

2014
ekainak **28**

**HEMEN
ETA EDONON**

**Askatasun
sexuala**

MANIFESTAZIOAK

IRUÑA
12.00 Autobus Geltokia

DONOSTIA
19.00 Bulebarra

GASTEIZ
13.00 Andre Mari Zuriaren Plaza

BILBO
20.00 Moyua Plaza

ehgam
Euskal Herriko Gai Askapen Mugimendua
www.ehgam.org
www.facebook.com/ehgam

Afrikako homosexualen borroka

Marc Serena kazetariak zazpi hilabete eman ditu Afrikan, LGTBI komunitatearen egoera ezagutzeko.

Afrikan, arazoa ez da gay, lesbiana edo transexuala izatea, hori agerikoa izatea baizik. Klandestinoa bada, ez baduzu jakinarazten, ez da ezer gertatuko; baina ez bazara lotsatzen, erakusten baduzu, hor duzu arazoa». Homosexualitateak Afrikan duen egoera bertatik bertara ezagutu zuen Marc Serena kazetariak (Manresa, Herrialde Katalanak, 1983), zazpi hilabetez. Iparretik hegora eta mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuen kontinentea, eta hamabost testigantza bildu ditu *«Esto no es africano!»* liburuan.

Informazio faltak eta «isiltasun konplizeak» eginarazi zion bidaia Serenari: «Galdera ugari nituen; gobernu kanpoko hain-

bat erakunderekin harremanetan jarri nintzen, baina ez zuen inork ere hitz egiten horren inguruan; ez zuten lantzen gaia». Afrikan zegoela, klandestinitatean lan egiten duen aktibista sare bat ezagutu zuen, eta haiei esker bildu ditu testigantza gehienak.

Nabarmendu du LGTBI lesbiana, gay, transgenero, bisexual eta intersexual komunitatea dela kontinente hartan «gehien jazartzen zaion» taldea. Afrika 54 herrialdeetatik 38tan, legez kanpoko da homosexualitatea, eta horietako lautan heriotza zigorra jaso dezakete. Serenaren esanetan, datu horiek gizartearen hainbat arlotan errotuta dagoen homofobiaren eta transfobiaren erpina besterik ez dira.

Besteak beste, erlijioen «erra-

dikalizazioa» salatu du: «Batek, Saudi Arabiatik etorritako islam erreakzionarioak Afrika iparraldeko islam tolerantia ordezkatu du, eta, bestetik, AEBetako eskuin muturrak finantzaturako ebanjelismo heteropatriarkalak hartu ditu herrialde kristauak». Homosexualitatea esesten dute erlijio gizon horiek, Mendebaldetik iritsia dela salatuta, «Afrikakoa ez» dela ziurtatuta. Hortik dator-ki izena liburuari.

Kazetariak dioenez, baina, hori ez da horrela, frogatua baitago lehendik ere bazeudela sexu berekoen harremanak. «Hainbat gizartetan, kolonialismoaren aurrietik emakumeak beren artean ezkon zitezkeen, eta emazte bat baino gehiago izan zezaketen». Serenak azaldu du kolonialismoak homosexualitatea ez baizik homofobia ekarri diela. «Egun, Afrikan indarrean dauden legeak kolonialismoaren ondarea dira, eta viktoriar garaioak dira

Liburu fitxa



- **Izenburua.** *«Esto no es africano! / Això no es Àfrica.»*
- **Egilea.** Marc Serena.
- **Hizkuntza.** Gaztelania eta katalana.
- **Argitaletxea.** Xplora (gaz.) eta La Magrana (kat.).
- **Orrialde kopurua.** 272.
- **Salneurria.** 20 euro pape-reakoa, 10 euro digitala.

hainbat. Ez dira berritu, eta indarkeria homofobia legitimatzen dute orain ere».

Nolanahi ere, homofobiak ez du lekurik Serenaren liburuan.

«Homofobia, bifobia eta transfobia bakarrizketak dira. Afrikan publikatu ezingo den Afrikari buruzko liburu bat da hau. Horregatik, proiektuan sinetsi duten guztientzat idatzi dut; bereziki haien izena esanez gero arriskuan jarriko nituen horientzat guztientzat».

Cabo Verdeko «oasia»

Liburuan bildutako guztia ez da jazarpena: badira bestelako kasuak. Aljeriako rai musika kaba- retetan harreman homosexualen inguruan kantatzen dute gizon musikariek. Cabo Verdeko kasua ere berezia da. Uhartedi horretan, emakume transexualak askatasun osoz bizi dira: «Hemen baino gehiago errespetatzen dituzte». Serenak azaldu du transexualitatea guztiz onartua dagoela Portugalgo kolonia ohi horretan. Sexu biologikotik harago, gizarteak emakume gisa ikusten ditu: «Cabo Verdek aurrea hartu digu».

berdindu!
Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen arteko zerbitzua
Servicio de atención a lesbianas, gays, bisexuales y transexuales

Araba Zapateria, 39 - bajo
01001 Vitoria-Gasteiz
945 257 077 berdindu.araba@aldarte.org

Bizkaia Berastegui, 5 - 5º
dptos. 8 y 9º 48001 Bilbao
944 237 296 berdindu.bizkaia@aldarte.org

Gipuzkoa Zabaleta, 47 - entresuelo A-B
20002 Donostia-San Sebastián
943 451 722 berdindu.gipuzkoa@gehita.org

Zerbitzu ibiltaria: / Servicio itinerante:
berdindu.ibiltaria@errespetuz.org 675 459 317
C/ Benidorm N° 1 Entrepantia izq-drch 48015 Bilbao

berdindu.eskolak@guztiok.org
647 976 001 / 653 721 725

berdindu.familiak@aldarte.org
944 23 72 96 / 665 73 44 28

berdindu!

Zerbitzuaren balorazioa
Valoración del servicio
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
berdindu@ej-gv.es

PERTSONA HELBURU
COMROMISO CON LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO